

99. zk.
2001eko martxoa



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria





korrika

Frankeo itundua 48/27



GASTEIZTIK BAIONARAT.
Martxoak 29 - Apirilak 8



**Taldeentzako
bisita gidatuak:
945 16 18 30**

*** Ordutegia:
11:00-14:00 / 17:00-21:00
Astelehenetan itxita
Igandeetan goizez**



**"Hizkuntzaren bizitza errepika da.
Hizkuntza (eta kultura)
baten bihotza errepika da"**
Abdelfattah Kilito

**"Kixote argitaratu zenean arabar gehienek
Ramaiana* bezala ulertuko zuten"**
(Odon de Apraiz, 1950)
*epopeia indiarra



ARABAKO EUSKAL HOTSAK
Montehermoso Kulturunea · Otsailak 16 - Martxoak 25

*Ikusi-makusi, zer ikusi, egin, entzun...
martxoan? ARABAKO EUSKAL HOTSAK
erakusketa, KORRIKA 12, martxoak 31: J.
C. PEREZ, ANARI... Eta erne
APIRILAREN 7ari!*

hilabete honetan

4-6:
zizka-mizkak

11:
Literatura

13-16:
behi eroen arazoa



17:
Denetarik

18-19:
Kozkortuz. Euskara bultzatzeko,
zer?

20-21:
Eba Gonzalez de Heredia:
Euskararen Udal Ordenantza...



23-25:
Badator Korrika 12!

27-29:
Unax Ugalderekin solasean



30-31:
Iker Foronda zestapuntalaria
Mundu mailako txapelketan



33:
zeuk aukeratu!

34:
txeroki Korrika-n

termometroa



MIKEL URDANGARIN. ESPILUE.
Otsailak 22. Geu aldizkariaren 100.
aleko kanpaina.

Jende ugari bildu zen Mikel Urdangarinek eta bere taldeak eskainitako kontzertu atsegin honetara.

Mila esker hurbildutako orori eta adi datozen ekitaldiei!



**EZIN IZAN DIRA "ARABAKO EUSKAL HOTSAK-
ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA"
ERAKUSKETAREN GASTU GUZTIAK KUBRITU.**
OROTARA 1.000.000 FALTA DUGU. **KOLABORATU
NAHI BADUZU....:**

3035 0056 43 056.0.03692.5
(EUSKADIKO KUTXA)

zenbakia

99... eta





GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a • Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak -bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DOAL. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Agurtzane Villate. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldua, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 • LG: VI-582/92 • ISSN: 1133-0988 •

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



ikusi-makusi




“Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava” erakusketaren inaugurazio ekitaldia: berezia, jendetsua eta arrakastatsua.

Egun horretarako bereziki prestaturiko ikuskizun batez gozatu ziren bertaratutakoak. Musika estilo desberdinak -txalaparta, flamenkoa, musika elektronikoa eta musika klasikoa bibolinaren soinuaz- eta dantza garaikidea nahastu ziren mezu bati begira: **“txalapartak musika estilo desberdinak biltzen dituen bezala, euskara ere hel dadila bizitzaren arlo guztietara”**. Atal flamenkorako, batetik, Gamiz-en (XVIII. mendeko Sabandoko poeta) zenbait kopia eta, bestetik, Mikel Laboaren “Gure hitzak” (Bernardo Atxaga-Abdelfattah Kilito) kanta egokitu ziren. Ekitaldi honekin euskararen historian zehar arlo desberdinetan arabarrek izandako izaera aintzindaria ere islatu nahi izan zen...



Argazkiak: Karlos Fdz. de Betoño

araba bixotzian Agurtzane Villate



gastelZkinak

Artium

izenak

- 1. Euskara Hiztegia (1562). **LANDUCHIO-k** GASTEIZEN egina
- Euskaraz gordetzen den dotrinarik zaharrena. **JUAN PEREZ DE BETOLAÇA** (1556-60/1599-1600). BETOLATZA
- 1. Euskarazko antzezlanak: **PEDRO**



IGNACIO DE BARRUTIA (1682-1759). ARAMAIO

- Euskararen Akademiaren eta Euskal Gramatika eta Hiztegiaren aldeko 1. Eskaeretakoak, 1. Euskal Almanaka. **JOSEF PAULO ULIBARRI** (1775-1847). OKONDO



- Kixoteren euskarazko 1. itzulpen osoa. **JOSE DE PALACIO SAENZ DE VITERI** (XIX.eko 2. erdia). LEGUTIO

- Euskaltzaindia-ren 1. Estatutuak; Euskara batzeko 1. Proposamenetakoak:

FEDERICO BELAUSTEGIGOITIA (1876-1942). LAUDIO

- Fisika eta Kimikako euskarazko 1. Liburuak: **GABIREL JAUREGI** (1895-1945). ARAMAIO

• Euskaraz idatzitako 1. Komikia: **ABDON GONZALEZ DE ALAIZA** (?-1926). MUSITU

- "Es un deber de la juventud alavesa ilustrada el aprender el vascuence".

RICARDO BECERRO DE BENGOA. GASTEIZ (1845-1902)



- Euskaraz zin egiteko eredua, judu euskaldunak Gebaran, Langraiz Oka euskalduna, artzainen apeuak euskaraz, gaztelania ezagutzen ez zuten arabarrak, zigorrak eskolan euskaraz hitz egiteagatik, ezkontzak euskaraz, gaztelania ikasteko kanta, agiri ofizialak...



Hau guztia eta askoz gehiago ARABAN, ARABAKO EUSKARAREN HISTORIAN, ZURE HISTORIAN!!!

HURBIL ZAITEZ "ARABAKO EUSKAL HOTSAK" ERAKUSKETARA!

naturaren isladak



Iñaki Zorrazin

Nartzisoak (*Narcissus barduliensis*). Entzia mendikatean.

adi

martxoari

25era arte

Arabako Euskal Hotsak
ERAKUSKETA

Montehermoso Kulturunea

31a **KONTZERTUA**

JUAN CARLOS PEREZ

ANARI

Principal Antzokian.

21:00etan

apirilari

7an

“ATERAIOZU ZUKUA” eguna
- Goizez eta Gauez



*** MATERIALA SALGAI (kamisetak - txiskeroak)**

MIKO
izozkiak

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege aldea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



MATERIALA SALGAI
(kamisetak - txiskeroak)

**MARRAZKIAK • KOAD-
ROAK**
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Campusean
• liburudenda
• paperdenda
• informatika
bertan

Arriaga
Campus
Unibertsitate Pabilioia
Apraiztarrak, 1

Obren egite
eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 beheko - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• Fotokopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
behar duzun
guztia
PAPERTEGI TEKNIKOA

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo
teknologiak bakarrik berma dezakete
ongi egindako lana. Zerbitzu osoa,
norberaren neurritara, hurbila eta saiataua.

Horixe duzu gure
konpromisoa.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

ERAKUSKETAK HIRIAN

Geu aldizkariaren 100. alearen ospakizun ekitaldien artean, Otsailaren 16tik eta hilaren 25a arte Montehermoso kulturunean "Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava" izenburua daraman erakusketaz goza zaitezke, non euskararen aurrekariak Araban mapa, agiri, eskultura eta abar interesgarri ugariren bitartez ikus daitezkeen.

Hurrengo lerrootan Gasteiztarrek zer-nolako zaletasuna duten erakusketa ezberdinak ikustera joateko ikusiko dugu.

1) Ba al duzu arte-aretoek eskaintzen dituzte erakusketak ikustera joateko ohiturarik?
2) Zein gaik erakartzen zaitu gehien?



Manuel Fernandez (jubilatua)

1- Gasteizko arte-areto eta museo guztiak ezagutzen ditut goitik behera. Denbora libre asko dut eta bertara joatea gustatzen zait.

2- Ez dut bat berezirik hobesten, nire ustetan denak dira interesgarriak.



Juan (Udaleko enplegatua)

1- Egunkari edo telebistan begiratu eta erakusketa interesgarri baten bat aurkitzen badut, hara joaten naiz.

2- Arteari loturiko erakusketak ditut gogokoen.



Emilia Martin (etxeakoandrea)

1- Sarritan nire semeekin batera museoak ikustera joaten naiz.

2- Ikaragarri gustuko dut Natur Zientzietako Museoa, baina orokorrean gai guztiak gustatzen zaizkidala esan daiteke.

Mertxe (kazetaritzako ikaslea)

1- Ikasketek denbora asko kentzen didate eta ondorioz ez dut nahi besteko denborarik erakusketak ikustera joateko.

2- Gai didaktikoak gustatzen zaizkit gehien. Honetaz gain, Montehermoson dagoen Euskarari buruzko erakusketari buruz oso ondo hitz egin didate eta ahal bezain laster hau ikustera joango naiz.



Sonia (ikaslea)

1- Noizbehinka joaten naiz, baina ez oso sarritan.

2- Erakusketa bat ikustera animatuko nintzateke itsasoarekin erlazionatuta balego.



Joaquin Martinez (jubilatua)

1- Bai, askotan joaten gara nire emaztea eta biok. Paseo bat ematera irten eta bidean topatzen ditugun erakusketa guztietan sartzen gara.

2- Artea orokorrean dugu oso gogoko.



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net



NONBAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38




**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko hantoiako ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

RAFA TEJA ATELIER



*"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"*

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004



**BEIRATE
ESTUDIOA**

**MIKEL
DELIKA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

Elkarlanean argitaletxeak aurkezten du...



101 GAU

Jesus Mari Olaizola "Txiliku"

Eguneko lanak amaituta, irudimena libre utzi du Txilikuk, gauaren erritmo lasaian kontu-kontari aritzeko eta, Xerazade berri bat balitz bezala, 101 gauetan zehar beste horrenbeste istorio asmatzeko. Erudizioz nahiz ironiaz jantzia baina beti arin eta jostari, irakurlea liluratu eta limurtu nahi du egileak, beste gau bateko bizia lortzeko, liburuarekiko harreman maitakor hori luzatzeko.

Era guztietako gaiak eta osagaiak dauzka liburu pertsonal eta berezi honek: esaera zaharrak nahiz pasadizo xelebreak, mitologia klasikoa eta sineste berriak, botanika edo zoologia, han-hemen bildutako kantu eta poemak, inguruko nahiz urrutiko bitxikeriak, historia zein zientzia, sexua... Edonondik ireki eta edonon laga litekeen obra da 101 gau, baina ohe-mahaiaren gainean utziz gero deitu egingo dizu, jakintzaz eta umorez ondutako magnetismo apal horrekin, beste ataltxo bat behinik irakur dezazun. Ezin jakin zenbat gau emango duzun liburu honen konpainian baina, bukatu eta gero ere, beste gau askotan iraungo dizu seguruenik haren oroipen gozoak.



Jesus Mari Olaizola "Txiliku" (Zarautz, 1951) ingeniari teknikoa eta maisua da ikasketaz, eskolako materialen egilea ogibidez, jakintza modu guztien biltzailea zaletasunez. Obra zabala du haur eta gazteentzako literaturan, hala nola "2061: antzinako kronikak", "Katixa eta Kroko", "Indianoa"... Hizkuntza jostagai bihurtzen duten bi igarkizun-liburu ere osatu ditu: "Lau titiriti, bi tatarata", "Axa mixa zilarra"; helduentzako narratiban 1999an kaleratu zuen "Hontzaren orduak", kritikaren txaloak eta irakurleen arreta bereganatu dituen ipuin-bilduma.

MARTXOKO LEHIAKETA:

***Zer izenburu du Jasone Osororen liburu berriak?**

OTSAILEKO LEHIAKETA. IRABAZLEA:

MAITE ALONSO. ZORIONAK!

ERANTZUNA: MEXIKON (GALDERA: "DURANGO DURANGO". NON OTE DAGO BESTE DURANGO HORI?)

Bidalguzue erantzuna postaz (Geu aldizkaria. Pedro Asua 2-3. a 01008-GASTEIZ) edo e-mailez (geugaste@grn.es)

JEAN FRANÇOIS SAURÉ ARGITARATZAILEAREN ESKUTIK...



KONTATZEKE LAGATA.

Edu Romero. Marrazkiak: Iban Astondoa

**III. SAGITARIO SARIA.
ARAMAIOKO UDALA**



"...Botswanako iparraldean eta Zimbabweco Victoria Falls hirian ikusiak, entzunak eta pentsaraziak dituzu orain irakurgai, Zuri-beltzeko deskribapen hauen irudi exkaxa izan beharrean, hobe bazter koloretsu haietaz zerori egiatan gozatzen baduzu, horrek ez du berdingairik eta..."





etxean jaso nahi dut



Izena

Abizenak

Helbidea
Tfnoa:

P.K.
Herria
Herrialdea

Bankua/Kutxa
Sukurtsala

Kontu zk. (20 digitok)
Titularra

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

Behi eroak.



Nor da errudun?

EGUNEZ EGUN “BEHI EROEN” KASUAK BIDERKATU EGITEN ZAIZKIGU KOMUNIKABI-DEETAN. IZUA EZ DUGU ESANGO, BAINA KALEAN GERO ETA ZALANTZA GEHIAGO DAGO TXAHALKIA EROSI ALA BESTE ZERBAIT HARTZEAREN ARTEAN. ETA HONEN GUZTIAREN ERRUA ABELTZAINEK DAUKATE, PENTSU KUTSATUAK EMATEN OMEN ZIZKIETEN ABEREETI, ZERTARAKO ETA LEHENAGO HAZI ETA DIRU GEHIAGO IRABAZTEKO. HORI DA, BEHINTZAT, TELEBISTA EDOTA IRRATIA PIZTUZ ALA EGUNKARIAK IRAKURRIZ EDOZEINEK PENTSA DEZAKEENA. BAINA ABELTZAINEN ETA NEKAZARIEN IRUDIA KALTETUENA IZATEN ARI BADA ERE, BEHI EROEN GAIARI BURUZ HITZEGITERAKOAN BADAUDE ZENBAIT GAUZA KONTUTAN HARTU BEHARKO LIRATEKEENAK.





Errotutako arazoa

Euskal Herriko nekazal politika bi ardatzen gaine-an mugitzen da, Europako Batzordeak ekoizten dituen bi politika desberdinen gainean, alegia: Amankomuneko Nekazal Politika, edo PACa alde batetik, eta Landa Garapenerako Politika beste batetik. Euskal Autonomi Elkargoak eta Nafarroak berezko eskuduntza daukate PACa eratzen duten oinarritzko nekazal lege horiek garatzeko eta dirulaguntzak kofinantziatzeko. Honek autonomia handia ematen dio Euskal Herriari nekazaritzarako araudi eta sistema propioa garatzeko orduan. Lehen aipaturiko politika bietatik PACa da diru gehien eramaten duena, aurrekontu osoaren %50 inguru. PACaren helburua prezioak arautu eta produkzioari laguntzea da eta Europak bere osotasunean finantziatzen du. Landa Garapenerako Politikaren kasuan, ordea, Estatuek eta eskualdek diruaren erdia ordaindu behar izaten dute eta Europak aurrekontu osoaren %10 besterik ez dio ematen.

Arabako egoera

Araba, zorionez, eredu ona da nekazaritza eta abeltzantzen ikuspuntutik begiratuta. Lautadako lur lauak ezin hobeak dira nekazaritzarako eta mendialdea halakoa ere bada abeltzantzarako. Hala ere, Arabako landetako langileak ez dira lehen aipatu ditugun arazo horietatik libratzen eta gainera beste arazo garrantzitsurik badute: lurren falta. Familiaren ustiapenekin lan egiten jarraitu ala berriak sortu nahi duen gazte hezitu asko dauden arren, Administrazioak gizarte hiritarrarentzako lan egiten du; herriak hiritik datozenen txalet-auzo bilakatzen ari dira, nekazariak euren baserria utzi eta hirira mugitzera behartuta ikusten diren bitartean. Etxebizitza faltaren kontuarekin desagertzen ari diren nekazal eta abeltzantzarako lurrez gainera industriak erabiltezinak uzten dituenak gehitu behar dira. Paisajearen kontzeptu estetikoak ere zerikusia dauka arazo honetan; "parke naturalak" nahi ditugu, baina ez dugu bertan abere edota landaketarik nahi, argazkian ondo aterako den berde zati bat baizik. Lurra eraikuntzarako saltzea diru gehiago ematen duenez, gure nekazariak, zaharrak gehienak, alokairua eta salmentara jotzen dute.

Dirulaguntzarik ez, konpentsazioa baizik

Jatorriz PACa oso ideia ona eta beharrezkoa izan bazen ere -II. Mundu Gerraren ostean guztientzako elikadura eta nekazarien biziraupena bermatu nahi zuen prezio batzuk finkatuz-, urteekin eta industrializazioarekin batera, bere izaera aldatuz joan zen eta produkzio masiborako joerak kalte ekonomiko eta sozial handiak ekarri zituen. 1992an PACaren erreforma etorri zen Landa Garapenerako Politikaren bitartez, beste batzuen artean aurrejubilazioa edota nekazaritza integratua bezalako beste neurri agroanbientalak proposatzen zituen. Baina azkenengo politika honen edukiak ez dira behar bezala garatu eta horrek oraingo egoera erabat baldintzatu du. Izan ere, PACetik datorren dirua nekazari eta abeltzainen errentaren erdia suposatzen du eta amankomuneko fondo horietatik kanpo ez dago besterik; baina, aldi berean, laguntza ekonomikorik handiena gehien ekoizten duenari eta abere gehien daukanari ematen zaizkio. Eta gainera dirulaguntza hauek nekazari/abeltzainari bere aberea edota produktua hazi eta ekoizteko egin duen gastua eta merkaturako salmenta prezioaren artean dagoen desoreka nolabait estaltzeko besterik ez dute ematen, ez dago irabazirik. Horregatik ustiapen erraldoietarako joera eta landareak eta abereak gero eta azkarrago eta merkeago hazteko zoramena.



Publizitate negatiboa



Ibaien kutsadura dela, behi eroen kontua dela... nekazaria eta abeltzaina beti errudun. Aspaldi geratu zen argi behien gaixotasuna pentsuen kalitatea eta pentsu ekoizleek tenperatura baxuegietan erretzen dituzte pentsuak egiteko erabiltzen dituzten animalien hondarrak, eta gerokoak gero. Baina, ba al daki inork zeintzu enpresek ekoiztu dituzten pentsu kutsatuak? Ez, komunikabideetan abere gaixoa agertu den ustiapenaren izena besterik ez delako ematen. Halaber, ez da aipatzen administrazioak dirulaguntzak eman izan dituela pentsu horiek erosteko orduan, ezta legezko kalitate zigiluarekin batera zetozela ere. Beraz, norena da errua?

Adituekin solasean...

BELEN FERNANDEZ DE LEZETA, EHNEKO ABOKATUA ETA LANDA GARAPENERAKO TEKNIKARIA

- NEKAZARI ETA ABELTZAINEN EGOERA GERO ETA LARRIAGO DA. HONEN AURREAN, EHNETIK ZEINTZUK IRTENBIDE PROPOSATZEN DITUZUE?

Argi dago nekazaritza/abeltzantza industrial eta erraldoia gelditu behar dugula. Nekazaritza ekologikoaren alde egin behar da, gestio eramangarria egin behar dugu. Horretarako argi dago prezioen politika aldatu behar dela. PACeko dirulaguntzak aberastasun sozialaren eta ingurugiroaren babesean oinarrituz moldatu behar dira. Baina, horretaz gainera, nekazaritza integratuak (errekurtso naturalez baliatzen dena) aurrera egitea nahi badugu, kontsumitzaileok produktuek benetan balio dutena ordaintzen ohitu behar dugu. Europako zenbait herrialdeetan urte asko eta asko daramatzate nekazaritza/abeltzantza ekologikorako bidea egiten eta hemen ere posible dela ulertu behar dugu. EHNEren erronka Araban 20 urtetan lurrak ondo banatu eta ekoizten denaren ehuneko handi bat ekologikoa izatea da. Araba lurralde ezin hobea da horretarako. Gure baliabideak hobeto gestionatuz garapen sostenigarriaren bidean sartuko gara.

- DAGOENKO NAFARROAN "BEHI EROEN" GAIXOTASUNAREN KASU BAT EGON DA, POSIBLE AL DA EUSKAL HERRIAN KASU GEHIAGORIK IZATEA? NORAINO FIDA GAITEZKE GURE USTIAPENETAN EKOIZTEN DEN HARAGIAREKIN?

Nafarroako Aezkoakoaz gain, Euskal Herrian ez da oraindik kasurik eman eta hori ez da kasualitatea. Euskal Autonomi Elkargoan eta Nafarroan gainontzeko Estatuko eskualdeetan ematen ez diren baldintza batzuk baditugu hemen. Esate baterako, kontrol sanitarioa askoz zorrotzagoa da, ustiapenak txikiagoak dira eta arraza autoktonoa nagusitzen da. Gainera, gure mendietako asko publikoak dira,



beraz, abereek jan dezaten larrerik badago. Hala ere, behi eroen kasuren bat emango balitz haragia ez litzateke merkatura iritsiko kontrol sanitario gogorrak ditugulako.

Hala ere, ezin dugu Nafarroako kasua pasatzen utzi, susmo txarrerako beste ate bat irekitzen duelako. Izan ere, ustezko landare-pentsuak eta larreetako belarra besterik jaten ez zuten behi hauek esne hautsez elikatu zituzten txahal garaian. Pentsuei, beraz, esne-hauts kutsatuak ere gehitu



behar oso larria da. Baina Euskal Herriko kontsumitzaileak lasai egon gaitezke alde horretatik; izan ere, Eusko Label kalitate zigiluarekin lan egiten duten ustiapenetan txahalak guk hartzen dugun brickeko esne beraz elikatzen baitituzte eta hori berme bat da.

- ADMINISTRAZIOTIK, NOLA EGIN BEHAR ZAIO AURRE ARAZOARI?

Estatuak hainbat neurri hartu beharko lituzke. Batetik, benetako zergatien kontra ekin beharko luke. Kasurik eman den ustiapenetako animala guztiak hiltzea ez da konponbide egokia. Gaixotasunean ikertu egin behar da. Eta, noski, bestalde, ardurak banatu egin behar dira. Abeltzaina errudun gisa agertzen ari da eta honetan pentsu-etxeek, administrazioek eta ekoizleek erantzukizun handia dute. Abeltzainak oso kaltetuak izaten ari dira eta bidezko kalte-ordainak behar dituzte, osoak, bai kalte finantzieroengatik bai galdu duten lanpostuarengatik. Eta, noski, bitartean erabateko kontrol sanitarioa bermatu behar da. Merkatura iristen den haragiari kendu behar zaiona argi gelditu behar da behingoz, eta neurri horiek garestiak badira guztion artean ordaindu beharko dugu.

ELENA SUESKUN, NATUROPATA

- BEHI EROEN ARAZOAREN EZTANDAREKIN ALDAKETARIK NABARITU AL DA PRODUKTU EKOLOGIKOEN ESKARIAREN ALDETIK?

Bai, eskaria igo egin da, baina ez pentsa aldaketa oso nabaria izan denik. Hau da, haragia jaten zuen jendeak haragia jaten jarraitzen du, baina kalitatea gehiago begiratzen denez, zenbaitek ekologiko-rantz jotzen du. Dena dela askoz gehiago igo da arrainaren salmenta haragi ekologikoarena baino. Baina benetan nabaritu egin dena landare proteinei buruzko jakin-minaren areagotzea izan da. Jendea tofu-ari eta seitan-ari buruz bereziki galdetzerazartu egiten da, mundu hau oso ezezaguna oraindik gure gizartean eta oso kontutan hartze-ko aukera da. Haragia ia jaten ez dutenen kultura asko dago eta hori dira, guk baino osasun hobearekin gainera.

- HARAGIAZ GAINERA, GURE GORPUTZAK BEHARREZKO DITUEN PROTEINA KOPURUAZ ASETZEKO ZEINTZUK PRODUKTU DAUZKAGU GURE ESKUETARA?

Benetan oso erreza da egunero behar dugun proteina kopurua etxean ditugun jakiekin barneratzea. Esate baterako, zerealak eta lekadunak batera hartzen baditugu kalitatezko proteinak barneratzen ari gara. Esnekiak hartzen badituzu proteinak daukazu, arrautzekin gauza bera... Zailena beharrezko proteina kopuru hori ez hartzea da. Nolabaiteko obsesioa dago proteinak eta proteinak hartzeko, eta oso gutxirekin normal normal bizi gaitezke, gehiegizko kontsumoak, ordea, gure osasunean zuzenean eta txarrerako eragiten du.



- SOJA LANDARE-PROTEINEN MERKATUAREN LEHENGAI INDARTSUA DA, BAITA TRANSGENIKOKI GEHIEN EKOIZTEN DEN LANDAREETAKO BAT ERE. ERABAT FIDA AL GAITEZKE PRODUKTU HAUEKIN?

Nire ustez kontrol handia dago sojaren ekoizpenean. Dena dela, ekologikoki ekoiztutako sojaz eginko produktuak erabiltzen ohitu behar dugu, eta gauza bera gainontzeko jakiekin ere. Lehen familia baten diruaren ehunekorik altuena janarian joaten zen; orain, osterak, garrantzirik handiena beste gauza batzuei ematen zaie eta gerokoak gero. Ez gaude ohituta jakiek benetan balio dutena ordaintzen. Haragiarekin hori gertatzen da; egunero eta merke jan nahi dugu eta ezin da. Ez al litzateke hobe izango asteen behin edo bitan hartu eta primerazko kalitateaz eta zaporeaz gozatu? Kalitatea, kopurua eta prezioaren gaintetik baloratzen ikasi beharko genuke.

BIDEOGINTZA

SAMA. IKUS-ENTZUNEZKOEN ELKARTEA. IKAS-
TETXEEI ZUZENDUTAKO GIDOIEN II. LEHIAKETAren
IRABAZLEAK

EUSKARAZ:

- 1.: TAMARA MAYO NIETO, "AMODIOZKO
MENDEKUA"
- 2.: IÑIGO MARTIN, "ERREALITATE BELTZ"

- 3. ASKOA RAMIREZ DE LA PECIÑA,
"NIRE PISTOLA BERRIA"

GAZTELERAZ:

- 1.: EDURNE GLZ. DE LANGARIKA MENDIZABAL,
LAURA PIÑEDO LASO, "EL BEBÉ MÁS ESPERADO"
- 2.: JAVIER BOAL ULLIBARRI,
"EL MISTERIO DE OZAETA"
- 3.: GORKA GARCIA SERRANO, MIKEL ORTEGA,
"AKELARRE EN OTXATE"

HARA! UDABERRIA JAIA IKA-N. MARTXOAK 21

Ika-k udaberriaren etorrera ospatu nahian ikasleei zuzenduriko jai-eguna prestatu du hilaren **21**erako. Ekintza gehienak euskaltegitik kanpo egitekoak dira, "kalea ere euskaldundu behar da eta. Gasteizen euskaraz gero eta gehiago mintza gaitezen". Honakoa duzue egitaraua:

- **9:00etan**, TXOKOLATE JANA eta KANTA TXAPELKETA (Euskaltegietan)
- **10:00etan**: BIZIKLETA MARTXA. Euskaltegi guztietatik atera, Andre Maria Zuriaren plazan bildu, eta Mendiolako sagardotegian bukatu; bertan, sagardo eta txorizo dastaketa.
- **10:00etan**. ZINEA: "Azken Mohikanoa" (GOIURI JAUREGIAN)
- **15:30etan**: Tarta txapelketa (Euskaltegietan)
- **17:30etan**. ZINEA: "Wanda izeneko arraina" (LUIS DE AJURIA ARETOAN)
- **20:00etan**: BERTSO SAIOA (Jon Maia, Igor Elortza eta Jesus Maria Irazu).
EL PARRAL TABERNAN
- **20:00etan**: KONTZERTUA-ARIMA BELTZA
(HALA BEDI TABERNAN)

GEUREKIN MENDIRA.
MARTXOKO IRTEERA

LEUNGANA-URTEMONDO

Noiz: Martxoak 11

Irteera: Goizeko 8.30etan

Txapela tabernatik

(Prado kalea) - kotxez

***egun osoko irteera da**

Tfnoak: 945 26 68 12

945 28 23 16 (Bego eta Maite)

ALDIZKARI BERRI BAT GASTEIZEN...

"LA Z DE GASTEIZ".

ERREBOLTARAKO GONBIDAPENA

Otsailean aldizkari berri honen 0 alea kaleratu da . Aldizkakoa izango da eta doan banatuko da..



Zein ideia bururatzen zaizu euskaraz bultzatzeko? Zemezu botakozenuke euskararen alde?...

...Umandi ikastolako umeen erantzunak jaso ditugu, gure txikien pentsaera eta egiteko erakzuei eskaintzeko; helduok ere haiengandik ikas dezakegu-eta.



GARAZI, 10 urte

- Denok euskaraz hitz egitea dibertigarria da.
- Euskal Herria euskaraz hitz egitea behar da, gure hizkuntza berritu behar da.

- Euskara bultzatzeko ekimen gehiago egotea.
- Euskara dakigunok euskaraz gehiago egitea behar dugu, bestela galtzen da.



GARAZI, 12 urte

- Euskara dakitenek besteei irakatsi.
- Euskaraz egin behar da, bestela denborarekin galduko da.



CIRA, 11 urte

- Lagunekin hitz egiten hizkuntza hobeto menperatuko dugu.
- Euskaraz hitz egitea polita da eta, gainera, beste hizkuntza bat dakigu.

A, HIZKUNTZA BIHOTZA" KOKORTUZ

araz
elako.
rian
egin
ure
ita.



NORA, 11 urte

- Euskararen inguruko
festa gehiago egotea.
- Gero eta ume
gehiago ikastoletara
joatea.



NAGORE, 11 urte

- Marrazki bizidun gehiago
euskaraz ematea.



UXUE, 8 urte

**EBA GONZALEZ DE HEREDIA
EHko zinegotzia Gasteizko Udalean**

“Gasteiztarrek jakin behar dute zein den PPren benetako aurpegia”



Gasteizko Euskararen Udal Ordenantza indargabe utzi zuen iragan hilean PPk, euskaltzaleek osatutako lan-taldea bertan behera geratuz. Erabakia, euskaldunon aurkako erasotzat jo dute EHren Udal taldeak eta Euskaltzaleon Elkarguneko kideek. Eba Gonzalez de Heredia EHko zinegotziak gertatutakoa azaldu eta PPk euskara Araban “zokoratzeko” duen nahia salatu du.

- NOIZ SORTU ZEN EUSKARAREN UDAL ORDENANTZA ETA ZERTARAKO?

1997an, Gasteizko Udalan EAJ, UA eta PSE-EEren botuekin euskararen inguruan dauden gaiak kontrolatzeko eta bere garapena ziurtatzeko arautegi bat aurrera atera zen. Hala ere, bai HB bai euskaltzaleen mugimendua oso kritiko agertu ginen garai horretan gobernuan zeuden alderdiak ez zeudelako prest ordenantza aurrerakoi bat egiteko. Aitzitik, bazegoen 10.artikulua, non proposatzen zen lan-talde bat sortzeko beharra, hain zuzen ere udal-ordenantza horien garapena ziurtatzeko eta baloratzeko, eta hor ikusten genuen bazegoela ziurtagiri bat instituzioaren baitan zer bait egin ahal izateko.

- NORTZUK HARTZEN DUTE PARTE

LAN-TALDE HORRETAN?

Mugimendu euskaltzalearen aldetik Euskaltzaleon Elkarguneak, Araba Denon Eskolako gurasoek, Ikastolen Federakundeak eta Euskaltzaindiak. Eta bestetik, alderdi politiko guztiek nahiz eta pasa den legealdian, lan taldea bildu den bakoitzean PP inoiz ez den gertu. Horrek adierazten du haiek euskararekiko duten interes eza eta euskarari eta mugimendu euskaltzaleari izugarrizko mesprezua egiten ari diotela.

- EAJ UDAL GOBERNUAN ZEGOELA, ZER-NOLAKO FUNTZIONAMENDUA IZAN DU LAN TALDE HORREK?

Jose Angel Cuerda alkatetzan egonda ere, oso gutxitan bildu izan da lan-taldea, betiere mugimendu euskaltzaleak eskatuta,

edo gure taldeak, bere garaian HBk, eskatu zuelako. Egia esan, EAJ Udal gobernuan egonda ez du lan-talde hori dinamizatu nahi izan, ez dute interes handirik izan benetan lan taldea martxan jartzeko.

- ETA PPREKIN GOBERNUAN?

PP agintera heldu eta urte t'erdi luze honetan lan taldea ez da behin ere bildu. Gauzak horrela, EHk pasa den Udal Batzarrean alkateari galdetu zion ea noiz bilduko zen lan-taldea. PPren erantzuna izan zen bukatutzat ematen zutela talde horrek egin beharreko zeregina, Kale Izendegiaren euskaratzearekin bere lana bukatuta zegoela, alegia. Hori egia ez izateaz gainera, suposatzen zuen Ordenantzaren hamargarren artikuluen erre-

dakzioa aldatu beharko zutela.

- ZER SUPOSATZEN DU EUSKARAREN-TZAT LAN TALDE HORI DESAGERTZEAK?

Bere garaian hizkuntza eredu bakarraren ezarpenaren mehatxua egon zenean Gasteizko gizarteak oso ongi eta oso argi erakutsi zuen zein zen bere nahia: euskaraz bizitzea eta euskaldunon hizkuntza eskubideak defendatzea. Kasu honetan Gasteizko gizarteak jakin behar du zein den benetan PPren asmoa eta bere benetako aurpegia. Eta gizarteak erreakzionatu egin behar du, horren kontra azaldu beharko du.

-DEN DELA, PPK HAUTESKUNDEAK IRABAZI ZITUENEAN IMAGINATUKO ZENUTEN EUSKARAK OZTOPO GEHIAGO IZANGO ZITUELA.

Irango dago PP erakundeetan sartu

denez geroztik, bere benetako asmoa oso argi ikusten ari garela egunez egun, hau da, Araba eta Gasteiz espainolizatu nahi dutela, alegia, euskera zokoratu nahi dutela. Niri gauza batek kezkatzen nau, orain harrituta gaude Miguel Sanz Nafarroan euskarekin egiten ari dena ikusita, baina gure herrialde eta hiririari begiratu beharko genioke, Nafarroako Miguel Sanzek Gasteizen eta Araban beste aurpegi batzuk dituelako: Gasteizen Alfonso Alonso eta Miguel Angel Etxebarria dira eta Araban, Ramon Rabanera.

- UDALAN EZ EZIK, EHk KRITIKATU EGIN DU PPK ALDUNDIAN HIZKUNTZA POLITIKAN IZANDAKO JARRERA. HAIN ZUZEN ERE, ALDUNDIKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEARI AURREKONTU

GEHIAGO ETA PARTAIDETZA GEHIAGO EMATEA ESKATU DUZUE.

PPk Foru Aldundiko Euskara Zerbitzua bertan behera utzi zuen eta bere ordean, iazko azaroan Kontseilu bat sortzeko beharra adierazi zuen, non adituek baino ez zuten parte hartuko, mugimendu euskaltzalea at utziz. Gure ustez horrek suposatzen du mugimendu euskaltzalearekiko izugarritzko mesprezua. Guk askotan kritikatu dugu diru gehiago bideratzen dela hirugarren munduari euskerari baino. Horregatik diogu euskerari instituzioen laugarren mundua dela, izan ere, Udalak eta Diputazioak hirugarren mundura % 1 bideratzen dioten bitartean, Foru Aldundiak euskerari % 0.1 baino ez dio ematen.

ZIRT EDO ZART

- ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

Bakoitzak nahi duena egin ahal izatea, eta inork oztoporik ez jartzea.

-ZURE AMETSA?

Orain arte ume bat edukitzea izan da, orain haurdun nagoez... bada... lasai eta pozik bizitzea nire ingurukoekin.

-AMESGAIZTORIK?

Ez

-JENIORIK BAI?

Bai. Hala diote nire lagunak, nik ez dut uste hainbesterako denik.

-IRAKURRI DUZUN AZKEN LIBURUA?

"Solaz" ari naiz irakurtzen, Carmen Alborch-ena.

-GASTEIZEK DUEN GAUZARIK ONENA?

Lasaitasuna

-ETA TXARRENA?

Lasaitasuna ere bai. Batzuetan zenbait gauzari aurre egitea kostatu egiten zaigula.

-GASTEIZEN BIZIKO EZ BAZINA, NON?

Donostian izan ezik, Euskal Herriko edozein txokotan.

-EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?

Kostata eta jo ta ke egunero, bai.

-ZEIN POLITIKO GUSTATUKO LITZAIZUKE ELKARRIZKETATZEA?

Inor ez, nahiago dut kaleko edozein pertsona elkarrizketatu.

-ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Herriari tresnak eman behar zaizkio zer nahi duen esateko.

"Euskara Arabako instituzioen laugarren mundua da"



✓ **Jaioterria:** Gasteiz

✓ **Jaiotze-data:**

1967ko ekainaren 15ean

✓ **Ikasketak:** Soziologia

✓ **Euskara non ikasi:** AEKn

✓ **Zenbat denbora politikan:**

1991-1995 bitartean EHko biltzarkidea. Legealdi honetan Udaleko zinegotzia.



ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi

samurretan espezialduak

Garagardotegia

Astebururo
IREKITA

*Gerentzia
berria*

La Blanca

- * Oilasko erreak
- * Makailua
- * Solomoa
- * Tripakiak
- * eta abar...



Tfnoa. 945 27 90 46

Herrandarren kalea, 82 • Gasteiz


adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ



b a d a t o r **korrika 12!!!**

KORRIKAREN OIHARTZUNA GASTEIZTIK BAIONARAT

HOGEI URTE DIRA EUSKARAREN ALDEKO EKITALDI JENDETSU
ETA GARRANTZITSUENAK EUSKAL HERRIA ASTINDU ZUELA;
ORDUTIK 1980AN OÑATITIK BILBORA GURE LURRA LEHENEN-
GOZ ZEHARKATU ZUEN LURRIKARA ARE ETA INDAR GEHIAGO
BEREGANATZEN JOAN DA. GAUZAK HORRELA, 2.001. URTE
HONETAN 'MUNDU BAT EUSKARARA BILDU' LELOPEAN BADATOZ
KALETIK BARRENA GERO ETA GERTUAGO ENTZUTEN DIREN
OIHU ETA URRATSAK. GOAZEN DENOK EUSKARAREN ORAINA
ETA GEROA UZTARTZERA, GOAZEN KORRIKAN.

Testua. Josune Velez de Mendizabal / Argazkiak: Edorta Sanz

**Azkenengo
Korrikan
600.000 pertsona
baino gehiagok
hartu zuen
parte**

korrika-ren produktuak



Gertakari historikoa da jada, urtez urtez adin eta mota ezberdinetako milaka lagun bildu baititu Korrikak. Izan ere, 9 egunez etengabea doan lasterketa handi honek jendearen partehartzea areagotu du, azkenengo Korrikan 600.000 pertsona baino gehiago egon zirelarik; ezin ukatu beraz, Korrika euskal gizartea bere ondare kulturalaren berreskuratze eta suspertzearen alde dagoen islada dela, euskara maitatzen eta tentuz zaintzen duen Euskal Herriaren errainua.

NAFARROA ETA IPARRALDEA

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) antolatzen duen ekitaldi honek Nafarroa eta Iparraldeko ikasguak sustatzeko dirua biltzea du helburu. "Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegietan eguneroko lana indartu nahi dugu; izan ere, Nafarroan eta Iparraldean euskarak jasotzen dituen dirulaguntzak urriak direnez, premiak estaltzera ere ez dira heltzen".

Honekin batera, Korrikaren emanaldi berri honetan eta hasberri den milurtekoarekin batera, euskara eta euskal kulturaren biziraupenak duen garrantzia azpimarratu nahi izan da; horregatik Korrikak hizkuntza eta kultura gutxituen aldeko apustua egin du: "Globalizazioaren bidez uniformizazioa saldu nahi diguten arren, gu ez gara kolore bakarraren aldekoak; euskaldunon hizkuntza eskubideak Euskal Herri osoan bermatzeari eta arlo guztietan behar duen tokia aldarrikatzeari eutsi behar diogu".

Aipatu egin behar da halaber, aur-

tengo emanaldian Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak omendua izango dela. "Atzoko eta gaurko bertsolari, gaitartzaile, bertso-paper biltzaile eta, orokorrean, bertsolaritzaren garra isioturik mantentzen lagundu duten bertsozale guztiei egin nahi die Korrika 12k ongi merezitako omenaldia". Koordinakundeak bertsolaritza euskal kulturaren adierazpenik nagusizat dauka, izan ere, egun ahozko koplen tradizioa bizirik mantendu duen tresna sutsua dugu". "Bertsolaritzak bikain asmatu du egungo gizartearen kezak eta nahiak jasotzea; gainera, aro modernoaren beharretara egokitzen jakin izan du sustraiei uko egin gabe".

KULTURGINTZARAKO ZITA

Aurten, arabarrok Korrika 12aren abiapuntu Gasteiz dugula eta, bereziki ospatuko dugu euskararen festa nagusia gure karriketan. Gainera kalez kale, auzoz auzo eta herriz herri Korrikaren freskotasanak otsaila eta apirilaren bitartean hainbat kultur ekitaldi dakarkigu, hala nola, kontzertuak, antzerki emanaldiak, bertso antzerkia, hitzaldiak, mahainguruak...; gustu, zapore eta kolore guztietako entsalada. Ezin galdu hortaz!!

Adriana Gasco, Kirmen Uribe, Ruben Sanchez, Ane Agirregomezkorta, Ixiar Iñarra eta Aitziber Simal izan ziren Korrikak bere inguruan biltzen dituen ekintza guztien berri ematearen arduradunak. Korrika, kulturgintzarako zita bezala aurkeztu zuten gazteek eta bertan jendeak parte hartzeko gonbidapena luzatuz ekitaldiaren baitan sorpresak izango zirela ere aurreratu zuten. Adi beraz!!

ANIMO, BA, GASTEIZTAR TXIKI ETA HANDIAK... ETA EUTSI KORRIKARI!!!

Korrika
12k euskararen
biziraupenak duen
garrantzia azpima-
rratu nahi du

MARTXOAN **EKITALDIAK** **BARRA-BARRA**

Hile honetan ez dira gutxi Korrikak Gasteizen antolatu dituen ekitaldiak. Musika, mahainguruak, dantza, antzerkia... hona hemen horietako bakan batzuk:

MARTXOAK 10

DANTZA GARAIDEA

Hegoalde Gizarte etxean, 20:00etan

MARTXOAK 13

BERTSO POESIA

Parral tabernan. 20:30etan

MARTXOAK 13

BERNARDO ATXAGAREN IRAKURRALDIA

Filologia Fakultatean, eguerdian.

MARTXOAK 17

“KOMERIAKA” ANTZERKI EMANALDIA,

Principal Antzokian. 20:30etan

MARTXOAK 24

MUNDUKO MUSIKA JAIALDIA

Mendizorrotza kiroldegian, 22:00etan

MARTXOAK 25

MIKEL TELLERIAREN KONTZERTUA

Hala Bedi tabernan, 20:00etan

KORRIKA ARABAN

LEKUA	DATA	ORDUA	Km.ak
Gasteiz	Martxoaren 29an	18.00	
Gasteiz	Martxoaren 29an	21.15	30
Estarrona	Martxoaren 29an	21.38	2
Mendoza	Martxoaren 29an	21.47	5
Langraitz	Martxoaren 29an	22.39	8
Argantzun	Martxoaren 29an	23.38	9
Pobes	Martxoaren 30an	00.36	9
Gesaltza	Martxoaren 30an	1.28	8
Espejo	Martxoaren 30an	2.01	5
Karkamu	Martxoaren 30an	2.53	8
Zubilana	Martxoaren 30an	4.30	15
Kuartango	Martxoaren 30an	5.48	12
Izarra	Martxoaren 30an	6.21	5
Orduña	Martxoaren 30an	8.11	17
Amurrio	Martxoaren 30an	9.10	9
Altube	Martxoaren 30an	10.47	15
Murgia	Martxoaren 30an	11.26	6
Zaitegi	Martxoaren 30an	12.00	5
Legutio	Martxoaren 30an	14.10	20
Artziniega	Apirilaren 1ean	8.59	12
Arrespalditza	Apirilaren 1ean	9.58	9
Laudio	Apirilaren 1ean	11.16	12
Areta	Apirilaren 1ean	11.29	2
Ull. Ganboa	Apirilaren 3an	2.38	8
Durana	Apirilaren 3an	3.30	8
Betoño	Apirilaren 3an	3.49	3
Gardelegi	Apirilaren 3an	4.41	8
S. Bixentetxo	Apirilaren 3an	5.53	11
Urizarra	Apirilaren 3an	7.17	13
Bastida	Apirilaren 3an	8.55	15
Samaniego	Apirilaren 3an	10.13	12
Eltziego	Apirilaren 3an	11.31	12
Biasteri	Apirilaren 3an	12.03	5
Oion	Apirilaren 3an	13.41	15
Ekora	Apirilaren 3an	14.33	8
Bernedo	Apirilaren 3an	15.38	10
Kanpetzu	Apirilaren 3an	17.15	15
Agurain	Apirilaren 3an	20.43	32
Araia	Apirilaren 3an	21.35	8

K
O
R
R
I
K
A

- NOIZ: MARTXOAK 30, OSTIRALA.
- IRTEERA: AIXKIRIA Euskaltegitik (Mardones kalea, 8), 15:00etan.
- 2 ORDUKO IBILBIDEA.
- AMAIERA: PLAZA BERRIA, eta bertan, JAIA (TAILERRAK, ANTZERKIA, MUSIKA, PUZGARRIAK...).

- MEZUA UMANDI IKASTOLAK PRESTATUKO DU.
- Marrazki lehiaketa baten bidez Korrika Txiki-ko kartela prestatuko da.
Ale hau itxi orduko irabazlea nor zen zehazteke zegoen.
- Txikienek ere, hau da 3 urtekoak, korrika egingo dute... Azken zatia beraiena da.

T
X
I
K
I
A





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

1

aadi

martxoari

apirilari

**eusko
alkartasuna**

www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

GA
gazte
abertzaleak

www.gazteabertzaleak.com

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

Zaldiaran Plaza, 10 • Tfoa.: 945 22 65 64



**“Betikoa
izaten
jarraitzen
dut,
jendea da
nirekiko
aldatu
dena”**

UNAX UGALDE



- ✓ **Jaioterria:** Gasteiz
- ✓ **Jaiotze data:**
1978ko azaroaren 27an
- ✓ **Ikasketak:**
Arantzabela Ikastolan,
Koldo Mitxelena
Batxilergoa eta Basauriko
Antzerki Eskolan hasi
-lehenengo kurtsoa bukatu
ez- eta jada lanean hasi zen
Unax, hemeretzi urterekin.
- ✓ **Zaletasunak:** lan egin behar
ez duenean etxean lasai
egotea du gustuko, batez ere
zinemaz nahiz telebistaz
deskonektatzeko.

**GAZTETATIK ZABALDU ZITZAIZKION UNAXI TELE-
BISTAN LANEAN ARITZEKO ATEAK. BASAURIKO
ANTZERKI ESKOLAN HASI ETA BERTAN URTEBETE
EGIN BAINO LEHEN, TELESADIOZ TELESADIO HASI ETA
PANTAILA HANDIAN DABILKIGU GAUR EGUN HOGEI-
TABI URTEKO GASTEIZTAR HAU. EGITASMO ANI-
TZEK ETA LANEAN JARRAITZEKO GOGOAK ETORKI-
ZUN OPAROA DAKARKIOTE. GASTEIZTAR HONEN
AURPEGIAK EUSKAL HERRIAN EZEZIK, ESTATU
OSOAN ZERESAN UGARI EMAN DU.**





U N A X

-ENTRE DOS FUEGOS, A LAS 11 EN CASA ETA EL GRUPO BEZALAKO TELESAILK ZURE AURPEGIA ESTATU OSOAN EZAGUTARAZI DUTE... NOLA LORTU ZENUEN TELEBISTA MUNDUAN SARTZEA?

Basaurin arte dramatikoa ikasten ari nintzela eskolako hormetan 16-18 urteko mutil bat bilatzen zuen casting-aren iragarkia ikusi nuen; han aurkeztu eta hiru frogen ostean hartu nindutela esan zidaten, gero serie batean parte hartzeko zela enteratu nintzen; eta gauzak horrela, lehenengo ikasturtea bukatu gabe nuela, lanean hasi nintzen.

-BADIRA URTEZ LANEAN ARITU DIREN ANTZEZLEAK, MADRILGO ESKOLAN -ONENA OMEN DENA- IKASI DUTENAK ETA ORAINDIK AUKERARIK AURKEZTU EZ ZAIENA; ZUK BERRIZ, HAIN GAZTE IZANIK, HORRELAKO KARRERA BIKAINA DUZU...

-Madrilera joatea zaila baino, ausardi kontua da, hau da, oso ausarta izan behar duzu; izan ere hiria oso haundia da eta aktore asko dago, bertara bizitza bilatzera jende ugari doa, nire kasua berriz, ezberdina izan zen ni ez bainintzen lan bila joan, lan egitera baizik. Beraz, benetan zaila dena bertan mantentzea da, hel zaitezke, lan egin eta gero ez errepikatu.

TELEBISTAN NAHIZ ZINEMAN

-TELEBISTAN EZEZIK, ZINEMAN ERE ARITZEN ZARA; "BAILAME EL AGUA" FILMEAREKIN DEBUTA EGIN ETA ORAINDIK PANTAILA HANDIAN ESTREINATZEKE BESTE BI ANTZEZLAN DITUZU, "LAS BELLAS DURMIENTES" ETA "MI DULCE".

"Bailame el agua"-k, aurrekontu gutxiko filmea izan arren, uste baino kritika hobea jaso du, oso kritika onak hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, pelikulak jaso behar zituen kritika guztiak ez ditu izan, baina bai ordea aktoreok. Beste biak berriz, Gijon-go festibalean aurkeztu dira baina oraindik ez dira estreinatu.

-TELEBISTA ETA ANTZERKIAN LAN EGITEAREN ARTEKO EZBERDINTASUNIK BA AL DAGO?

Telebista antzerkia baino askoz ere kontrolatuagoa dago, botere batzuek kontrolatzen baitute eta gauzak nahi bezala ezin dituzu azaldu; zinean zentsura ere dagoen arren, askosaz independenteagoa eta askeagoa da.

-CARMEN MAURA, AITANA SANCHEZ-GIJON ETA HECTOR ALTERIO BEZALAKO AKTORE OSPETSUEKIN LAN EGIN DUZU, BESTEAK BESTE. ZER-NOLAKO ESPERIENTZIA IZAN DA HORI ZURETZAT?

-Nire irakasleak izan dira. Beraiekin lan egitea aprobetxatu eta beraietaz ikasi behar duzu, bakoitzak gauza bat erakutsiko baitizu. Izan ere, pertsona beretik ezin dituzu ezaugarri guztiak gustuko izan, batetik gauza bat eta bestetik beste zerbait atsegingo duzulako.

-KONTUAN IZANIK ZU NAHIKOTXO BERRIA ZARELA MUNDU HONETAN, ZER-NOLAKO HARTU-EMANA IZAN DUZU BETERA-NOEKIN?

-Errespetu handikoa, beraiek bere papera egiten dute eta nik berriz, nirea. Haiek ezin dute nire parean sartu nik beraienean ezin dudana bezala; elkarlanean ari gara eta nik gaizki egiten badut, nahiz eta beraiek oso ondo egin eskema errepikatu behar da. Beraz, elkarri laguntzen diogu. Nik ez diet ipurdia zuritzen, beraiek niri egiten ez didaten bezala, harremana profesionala baita.

-HORRELAKO CURRICULUM "POTOLOAREKIN" -GEZURTI, KLEPTOMANO, HILTZAILE ETA DROGAZALE PAPERAK JORRATU DITUZU-, ZEIN EGIN DUZU GUSTURAGO?

-Guztiak egin ditut gustura, guztiak baitute nigandik zerbait. Jendeak dio paper berdina egiten baduzu kutsatzen zarela, baina hori diote nik egin ditudan hainbat lanetan drogaren kontua ikusten dutelako, ez dutena ikusten da droga nire paperetan beste arazo bat besterik ez dela, eta zerikusirik ez daukala. El Grupo-ko Fiden pertsonajea eta Bailame el agua-n egin

BITXIKERIA. Honako anekdota kontatu zigun Unaxek :
"A las once en casa teleaioa grabatzen ari nintzen garaian izan zen hau; orduan ez nuen Madrilen inor ezagutzen eta lanetik etxera metroz joan ohi nintzen egunero, Desengaño kalean bizi nintzen, leku arrisku-
tsu batean. Behin metrotik irteterakoan geltokian bertan aurrez aurre hamazazpi urteko 20 bat neskekin topo egin nuen. Orduan ile horia neukan eta batere diskretua ez zenez ezagutu ninduten, beraien albotik pasa eta oihuka hasi ziren, orduan Gran Vía kalera irteten eta korrikan hasi nintzen. Jendeak lapurra nintzela pentsatu zuen; neskek, berriz, kilometro batez nire atzetik korrikan jarraitu zidaten."

dudan Daviden pertsonajea
oso ezberdinak dira..

-KOMEDIA ERE EGIN DUZU, ZER DA ZAILAGOA BARREA EDO NEGARRA SORTARAZTEA?

-Barrea sortaraztea zailagoa da.

-ZERTAN ALDATU DA TELEBISTAN ORAINDIK EZEZAGUNA ZEN UNAX ETA EGUN ZAREN AKTORE OSPETSUA?

-Ni bainoago, jendea nirekiko aldatu da, ni beti-
koa izaten saiatzen naiz. Ezagutzen dudak jen-
deak kalean gelditu eta orain dela asko ikusten
ez ditudanez zer moduz, zer egiten duzu... eta
horrelako galderak egiten dizkidate, beti dira
galdera berdinak, baina hori kontrolatzen
duzu baitakizu jendeak ilusio handiz egiten
duela.

-ORAIN EZAGUNA ZAREN HEINEAN, GAUZAK EGITEKO ORDUAN BIRBITAN PENTSATZEN AL DITUZU?

-Orain betikoa egiten badut ere, gehiago kon-
trolatzen dut. Jende baten aurrean gauzak egi-
tea ekiditen dut, jendeak aldatu egiten baititu;
aspertu egiten dira eta ez dakite zeri buruz hitz
egin. Nik errespetatu eta onartu egiten dut nire
lanaz hitz egitea, baina ez ordea nire bizitza per-
tsonalaz aritzea.

SEXYENA

-HONEZ GERO JAKINGO DUZU, ETBKO PROGRAMA BATEAN EUSKAL HERRIKO SEXYARENA IZENDATU ZAITUZTELA, ZER IRITZI DIOZU HORRI?

-Lotsa handia ematen dit, programara joango nintzela
esan nuen baina sail hori bukatzen denean, eta elka-
rrietzeta serioa egiten baldin badidate. Horren inguruan
hitz egitera ez bainaiz joango.

**-BAINA EGIA DA GAZTEAK ETA EZ HAIN GAZTEAK DIREN NES-
KATXAK ZORATZEN DITUZULA, ZEINTZUK DIRA ZURE ARMA
SEKRETUAK?**

-(Isilunea) Bada... ez dakit... betikoa izaten

Izan zaitez harpidedun

Geu aldizkaria bere hastapenetatik ezagutzen du
Unaxek, baita ordutik etxean jaso ere. Familian hiru
dira eta Unaxen ama argentinarra izaki, handik
Gasteizera etorri zenean bere semearekin euskaraz egin
ahal izateko euskara ikasteari ekin zion, eta ordutik
euskaraz aritu dira "nahiz eta orain dela nahikotxo era-
biltzen ez dugun".

jarraitzen dut eta lana ondo egiten saitzen naiz, lanean
ondo aritzen ez banaiz hurrengo teleserie edota filma ez
baitut nik egingo, eta orduan dena bukatuko da. Beraz, lana
ondo egiten baduzu gainontzeko publizitatea bere kabuz
dator.

-MADRILEN BIZI ZARA, NOLA SENTITZEN ZARA BERTAN?

-Madril eta Gasteiz oso ezberdinak dira eta Gasteiz
nahiago dut, nire lagunak eta familia bertan ditudalako,
betiko bizitza hemen egin dudalako... Baina orain nire
bizitza Madrilan dago han baitaukat lana, lanean ezagu-
tu ditudan lagun batzuk ere han daude. Bi urte dara-
matzat Madrilan eta orain ezin naiz hona bueltatu, akto-
re asko bueltatzen dira baina lana han dagoenez auke-
ra galtzen dute, gogorra da baina errealitatea da.

-ZER SUPOSATZEN DU BERTAN EUSKALDUNA IZATEAK?

-Ni oso zuhurra naiz, euskalduna naizela diot eta
errespetatu egiten naute nik espainolak direnak
errespetatzen ditudan bezala, nire lagunak espaina-
rrak baitira.

**-TELEBISTAN AGERTZEN DEN MUTIL HORRETAZ ZER DIOTE
ZURE GASTEZIKO LAGUNEK?**

-Oso harro daude nitaz, "Bailame el agua"-ren
Madrilgo estreinaldira gonbidatu nituen. Estreinaldia
primerakoa izan zen, 'famoseteak' eta guzti. Oso ongi
pasa genuen, beti bezala.

U G A L D E



ZIRT edo ZART

-ZURE GORPUTZ ATALIK POLITENA?

-Irribarrea

-ITSUSIENA?

-Serio jartzen naizenean

-PELIKULA ONEN BAT?

-El Cazador

-AKTORE GUSTUKOENA?

-Faboritoak ez zaizkit gustatzen,

bat esateagatik, Bardem

**-INOIZ ERE BERAREKIN KONPARATU
IZAN ZAITUZTE... ETA?**

... (irribarrea)... ondo...

-TXIKITAKO OROITZAPENIK?

-Asko, gero eta gehiago, adibi-
dez, nire lehenengo jostailua
izan zen kamioia

-GUSTUKO KOLOREREN BAT?

-Urdina

-TELEBISTA EDO ANTZERKIA?

Antzerkia

-MUSIKA TALDERIK GUSTUKOENA?

-Ez daukat bat bereziki, deneta-
rik entzun dezaket, punk-etik
musika klasikora

-BIZIORIK HANDIENA?

- (ja,ja,ja) Denak.

ZIRT edo ZART



Iker Foronda, Zestapuntalaria

**"Venezuelan
jaio eta bizi
diren arren,
euskaldunak
ere badirela
erakutsi
digute"**

**Azaroaren 22an Gasteiztik
atera eta Iker, Pilotako
Euskal Selekzioarekin orain
arte egin duen bidaiarik
luzeenean abiatu zen,
Venezuelara hain zuzen ere.
Han gauzatu baita orain arte
eta lehenengoz Euskal
Selekzioak pilotan jokatu
duen mundu mailako txapel-
keta; abenduaren 3a arte
bizkaitar, gipuzkoar eta ara-
barrez osaturiko talde gazte-
ak Venezuela, Txile, Peru,
Mexiko eta Uruguaiako lehia-
kideen aurrean erakutsi
zuen pilota eredu ezberdine-
tan (zesta, pala, banaka eta
binakako esku pilota) eus-
kaldunok dugun trebezia.
Hura bai ahaztezinezko
esperientzia!!**

Espainako Selekzioarekin 22 urte azpiko mun-
duko txapelduna den Iker Foronda zestapun-
tari gazteak Venezuelara bidaiatzeko auke-
ra paregabea izan du, eta hori gutxi balitz,
zestapuntan munduko txapeldunaren titulua ekarri
du bueltan bigarren. Ofizialtasunak alde batera
utiziz, Ikerrek adierazten digunez "Euskal Selekzioa
ofiziala izango balitz tituluak balioa izango luke,
baina ez den heinean, Simon Bolibar Kopako txapel-
ketan besterik ez ginen lehiatu". Gauzak horrela,
egun, Euskal Selekzioak onarpena eta ofizialtasuna
erdiesteko eta nazioarte mailako txapelketetan sartu
ahal izateko lanean gogor dihardu.

Ikerrek kontatzen digunez, lehiaketa Venezuelan
jokatzeko erabakia bertako eta Euskal Herriaren
arteko harreman bikainak bultzatu zuen, "hango
pilotari asko etorri izan dira Euskal Herrira, beraz,
gu hara heldu ginenean sekulako harrera egin zigu-

ten, oso ondo tratatu gintuzten; gainera Bolibar euskalduna zenez han asko maite dituzte euskaldunak; espainolei berriz, konkistarekin erlazionatzen dituztenez, amorrua diete”.

ANTOLAKUNTZA ARAZOAK

Badirudi hasierako momentuan arazoak sortu zirela, arazo txikiak, ez oso larriak, baina bidean trabak ipini nahaiaren itzala somatzen hasi zirela aipatu behar da. “Hegazkinatik jaitsi eta lehenendabiziko mementuan ekipaiak galdu omen ziren, han generaman jokatzeko beharrezkoa zen guztia baina gero agertu egin zen, badirudi guri hemen gutxitan gertatzen zaizkigun gauzak han antolakuntzaren erruz maiz jazotzen direla”. Bestetik, palek pisu gehiegi zutela ere komentatu izan zuten. “Bai jokatzeko moduan bai materialaren aldetik izugarrizko diferentzia dago, izan ere, Venezuelako Pilota Eskolak, ez dakit zenbat urte izango dituen, baina argi dago gurea aintzindaria dela eta azken finean beraiek hasi berriak direla, eta hor maila desberdintasun handia ikusten da”, azaltzen du Forondak. “Dena den, zenbat eta urte gehiago jokatu, maila hobea erakusten dutela argi ikusi dut, herrialde gehienak ia berriak badira ere, Mexikok eskuz nahikotxo urte eman ditu jokoan eta hori nabaria da”.

Bestetik, Hegoameriketako herri horiek darabiltzaten baliabideek harridura sortu dute Ikerrengan, “harriga-

Euskal Herriarekiko maitasuna

Euskal etxeetan aurki daitezkeen irakasleei esker, bertako bizilagunek interes eta arreta handiz, euskal ohituren zigiluaz pilotan jokatzeko ikasten dute. “Batzuk euskaldunak dira, beste batzuk, ordea, guraso euskaldunen seme-alabak, eta guztiak hemengo usadioak berreskuratu nahian dabiltza; hori dela eta, flipatuta gelditu nintzen Euskal Herriari buruz ia nik baino gehiago dakitela ikusterakoan... Arbasoek kontatu dizkieten istorioak, historia bera...oso abertzaleak dira eta kanpoan daudenez hemengo gauzak izugarri maite dituzte!”

Hortaz, Txapelketan parte hartzeaz gain, Euskal Selektzioak bertakoekin kultura ezagutaraztea eta elkarren arteko harremanak sendotzea du helburu, “Euskal Selektzioak ofizialtasuna lortzeko arazoan berri ere eztabaidatu eta kontatu genituen, mundialak jokatu ahal izateko indarra eta botoak lortu behar baititugu”.

Zale ugari daude Venezuelako euskal etxeko harmailetan nahiz frontoian, “bi mundu oso ezberdin aurkitu ditut han, batetik euskal etxetik kanpoko Caracas hori eta bestetik euskal etxe barnekoa”, dio Ikerrek. Berak aitortzen duenez, “oso esperientzia polita izan da, giroa primerakoa izan da, eta beraiek nahiz eta Venezuelan jaio eta bizi euskaldunak ere badirela erakutsi digute etxean bezala egon baikara”.

Herri hauetan txapelketako sariak Euskal Herria ezagutzeko astebeteko bidaiak izaten dira, oraingo honetan berriz, Simon Bolibar Kopa banatu bazen ere, tamalez, etxerako bidaia nahi-taezkoa zen.

rria da nola joka dezaketen dituzten material zaharrek; orain dela bi urte Kuban izan ginen eta oraindik ere orduan erabilitako zestarekin jarraitzen dute jokatzeko, zesta berberak irautea ere...gainera beraiek konpontzen dituzte...”

***Euskal
Selektzioak
onarpena
eta ofizialta-
suna erdies-
teko lanean
gogor dihar-
du Ikerrek.***





Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 · Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza · GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila · Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

**Ka
La
MUA**
TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5

Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi



**PITILIN
GORRI**

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ

bar · restaurante
A
albéniz

Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

H I O U A K

JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

ERNE IBILI MARTXOAN ZEHAR HONAKO AUKEREKIN!!!!

GEU ALDIZKARIAREN 100. ALEKO KANPAINA:

• **"ARABAKO EUSKAL HOTSAK" ERAKUSKETAK** MARTXOAREN 25ean AGUR ESANGO DIGU; HORTAZ, GOGOAN IZAN, EZIN BAITZAITEZKETE ZUEN HISTORIAREN ATAL GARRANTZITSU HAU EZAGUTU GABE GERA...

• ETA MARTXOAREN 31n:
JUAN CARLOS PEREZ ETA ANARIren KONTZERTUA!

KORRIKA KULTURALA ETA KORRIKA 12ren HASIERA

GAZTETXEAN...:

- **9an:** Nathan Puzzle + Ab Irato (Gasteiz), 21:30etan
- **10ean:** Ciudadano X + Fathe + Morgue (Gasteiz), doan, 20:30etan
- **17an:** Sagarroi (Iñigo Muguruzaren azken proiektua) + beste talde bat
- **24an:** Nafarroako herri okupatuen jaialdia
- **29an:** Korrika jaialdia eta kontzertua

IKA-REN UDABERRIKO JAIARI

EL PARRAL tabernak hilero eskaintzen duen agenda kulturala

KULTUR ERROTA Martxoak 27, 20:30etan
El Parral tabernan: *Xabier Montoia* (Geu elkartearen eskutik)

ETA...

MARTXOAK 8:

"2001. MILURTEKO BERRIA, ERRONKA BERA".
ADI OTSAILEAN HASI ETA MARTXOAN ZEHAR ANTOLATU EKITZA GUZTIEI.


***ZORIONAK
EMAKUME!!!**



MUSIKA



PATXI VILLAMORen KONTZERTUA
(KORRIKA KULTURALA)
MARTXOAK 23, OSTIRALA, 20:30etan, PRINCIPAL ANTZOKIAN
CD berriaren aurkezpena, "ESPERANTZA"
*Kontzertuan GONTZAL MENDIBIL eta LA BROCHETA D'OPORCO talde gasteiztarra arituko dira kolaboratzaile Patxi Villamor-ekin batera.
SARRERAK: 1000 pta. egunean bertan.
ALDEZ AURRETIK: 800 pta.
(KORRIKA KULTURALAREN txarteltxoaren bidez).



HEGOALDE
Euskaltegia

 **Matrikula zaitetz !!**

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea



• Euskaltegi Homologatua	• Musika eskola
- Helduentzat	• Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat	

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ




KONTZERTUA

MARTXOAK 31, LARUNBATA
21:00etan Principal Antzokian
Sarrerak: Arriaga, Zuloa eta bertan



ERAKUSKETA

MARTXOAK 25era arte
Montehermoso Kulturenean



badator
korrika!

100. zk
2001eko apirila



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

ALDIZKARIA 100. ALEA

ZORIONAK!!

Ospatu gurekin!!!



ARABAKO EUSKAL HOTSAK

ANTECEDENTES DEL EUSKERA
EN ALAVA **ERAKUSKETA**-EXPOSICION
Otsailak 16-Martxoak 25
MONTEHERMOSO KULTURUNEAN




MIKEL URDANGARIN

KONTZERTUA. PRINCIPAL ANTZOKIAN.
Otsailak 22, Osteguna, 20:30etan
(CD berriaren aurkezpena)



Sarrerak: Arriaga - Zuloa Irudia



J.C. PEREZ • ANARI

KONTZERTUA. PRINCIPAL ANTZOKIAN.
Martxoak 31, Larunbata, 21:00etan



Sarrerak: Arriaga
Zuloa Irudia



Ateraiozu
zukua
euskarari

Y saborea
su frescor

¡Sácale jugo
al euskera!

Eta bere
freskotasunetik
edan



• "ATERAIOZU ZUKUA, SÁCALE JUGO" EGUNA

Apirilak 7, larunbata, goizez eta guez
Egunez (12:00etatik aurrera):

- **KULKI taldea** (jolasak Farolon-en)
- **ZIRKO KALEJIRA**
Sebastopoleko Titiriteroekin
(Erdialdean eta Alde Zaharrean)
- **Informazio gunea...**

Gauetz. Gaztetxean:

- **ZUKU FESTA** 22:00etatik aurrera:
- **KESENGUE-KESENGUE** taldearen kontzertua
(Musika afro-karibetarra)
- **CUBO Dj-a** (Silum Soundz)

sartzeko zerbaít laranja eraman-llevar algo naranja para entrar




eta... **SORPRESA**
ugari!!!

Antolatzaileak:



GASTEIZ EUSKALDUNA


Babesleak:



Laguntzaileak:



Egunkaria



F U N D A C I O N



Caja Vital Kutxa

F U N D A C I O N

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa